



**URRETXUKO UDALEAN EUSKARAREN
ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN
ESTRATEGIKOA**

2023 – 2027

VII. Plangintzaldia

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	3
Udalaren euskara planak.....	3
2.- PLANAREN AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA.....	3
Orain arteko mugarri nagusiak.....	3
Bikain ebaluazioa.....	4
Langileen zerrenda eta hizkuntza egoera.....	5
3.- PLANA DISEINATZEKO METODOLOGIA, FASEAK ETA PARTAIDEAK.....	6
4.- 2023-2027RAKO PLAN ESTRATEGIKOA.....	8
4.1. Helburua.....	8
4.2. Oinarrizko irizpideak.....	8
4.3. Planaren egitura: kudeaketa eta erabilera.....	9
4.4. Diagnostikoa eta proposamenak, arloz arlo.....	10
4.5. 2023-2027RAKO PLAN ESTRATEGIKOA (TAULAK).....	11
5.- 2024RAKO KUDEAKETA PLANA.....	41
5.1. 2024rako lehentasunak finkatzeko irizpideak.....	41
5.2. 2024RAKO KUDEAKETA PLANA, EKINTZEN TAULAK.....	42
6.- PLANA KUDEATZEKO EGITURA.....	54
7.- ERANSKINAK.....	55
7.1. ERANSKINA: Eusko Jaurlaritzak proposatutako adierazleen panela (KEMEN metodologia)	55
7.2. ERANSKINA: Eusko Jaurlaritzak proposatutako adierazle sistema (KEMEN metodologia)	55

1.- SARRERA

Udalaren euskara planak

Udalek **bi plan** onartu ohi dituzte hizkuntzaren normalizazioaren arloan, biak ere Eusko Jaurlaritzak finkatutako gidalerroei jarraiki, eta biak berritzen dira 4-5 urtean behin:

1. Herrian Euskara Sustatzeko Ekintza plana (ESEP).

Udalerrira begirako plan estrategikoa. Gizarteko arlo multzo zabal batean euskara normalizatzekoa: familia, irakaskuntza, aisia, merkataritza, lan-mundua, teknologia berriak... 2024an landuko da datozen urteetarako plan berria.

2. Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.

Udal administrazioan garatuko den hizkuntza-politika jasotzen da plan honetan. Bigarren plan hau da dokumentu honetan jaso duguna eta ESEP lantzean harekin uztartuko dena. Lau-bost urteko iraupena izan ohi dute planok eta oraingoa VII. Plangintzaldiari dagokiona da, eta 2027ko abenduaren 31ra arteko iraupena izango du.

Edonola ere, plan hau oinarria da eta irauten duen 5 urte horietan jaso litezkeen ekarpenekin aberasten eta egokitzen joango da, beti ere bertan jasotako helburu eta irizpide orokorrei jarraiki.

Bestalde, plan estrategikoaz gain, 2024rako kudeaketa-plana ere osatu eta jaso da bertan.

2.- PLANAREN AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Urretxuko Udalak aurretik, legeari jarraiki, beste hainbat normalizazio plan izan ditu. Beraz, honako hau aurrekoen jarraipena da, plangintzaldi berriari egokituta dagoena.

Orain arteko mugarri nagusiak

LEGE OINARRIAK:

1982. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.

1997. 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena.

2016. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.



Urretxu

2019. 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.

2022. 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.

Bikain ebaluazioa

2021ean Urretxuk Bikain ziurtagiriaren kanpo ebaluazioa jaso zuen, egoera ahalik eta zehatzen ezagutzeko eta euskararen erabileran etengabe hobetu eta jarraipena egiteko asmoz.

Hauek dira ebaluazio taldeak bere ondorioetan jaso zituen indargune eta hobetzeko nagusiak:

Indarguneak:

Laburbilduz, eta ebaluazio-prozesu osoan zehar eskuratutako informazioa oinarri hartuta, talde ebaluatzaile honen iritziz hauek dira Urretxuko Udalak dituen 3 indargunerik garrantzitsuenak:

- *Udaleko ia langile guztiak, baita azpikontrataturako zerbitzuetako langile gehienak ere, gai dira euskarazko zerbitzua emateko. Horrek herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu egiten ditu eta laneko hizkuntza euskara izateko bideak zabaltzen ditu.*
- *Irudi korporatiboaren osagaietan hizkuntza-irizpideen betetze-maila erabatekoa dela ikusi dugu. Webgunean eta sare sozialetan euskararen presentzia bermatuta dago. Gaur egun komunikazioaz arduratzen den zinegotziak argi ditu zein diren hizkuntza irizpideak eta euskara maila ona du autonomiaz jarduteko. Era berean, herritarrekin egiten diren saioetan parte hartzen duten politikariek argi dituzte irizpide horiek.*
- *Pertsonen kudeaketari begira, udal barruko informazio-kanal gehienetan euskara nagusi da eta hainbat bilera eta lan-jardunetako idatzizko eta ahozko komunikazioak euskara hutsean egiten dira.*

Hobetzekoak:

Bestalde, hauek izan daitezke erakundeari aurrera egiten gehien lagun diezaioketen palankak, erakundearen beraren lehentasunak, errendimendua (eragin biderkatzailea) eta egingarritasuna aintzat hartuta:

- *Gaur gaurkoz, pertsona bakoitzaren esku dago euskararen erabilera; oro har, elkarriketatutako langile guztiek argi dituzte zein diren erabili beharreko irizpideak, baina pertsona horiek aldatuz gero, eta aldeko jarrera ez bada, udalak ez ditu ezarrita mekanismo irmoak euskararen erabilerak atzera egin ez dezan. Hori dela eta, talde ebaluatzailearen ustez, udalak datozen urteetarako anbizioa zein den zehaztu*



Urretxu

(esaterako, euskarazko sortze hizkuntza bultzatu eta euskara hutsezko dinamikak sortzea) eta horien jarraipenerako adierazle batzuen jarraipena egitea palanka garrantzitsua litzateke. Bide hau, bai herritarrekin, bai udaleko langile eta politikariek egin daiteke. Garrantzitsua izango da, era berean, egindako lanaren eta hartutako erabakien berri ematea interes-talde guztiei.

- *Udalak erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak, oro har, bermatzen ditu; euskaraz eta gaztelaniaz izaten dira komunikazio gehienak. Hori horrela, talde ebaluatzailearen aburuz, euskara hutsean lan egiteko eta erabiltzaile euskaldunei zerbitzua euskara hutsean emateko bidean urratsak eman ditzake Urretxuko Udalak. Horrela, udal barruko jardunbidera begira, euskara hutsean egin daitezke hainbat lan, eta, zerbitzu-hizkuntzari dagokionez, euskaldunek euskara hutsean jasotzeko bidea ere urra daiteke.*
- *Euskararen sustapenean udalak sortzen duen inpaktua handitzeko aukerak ere badaudela uste du talde ebaluatzaileak: merkatarien elkartearekin sinatutako hitzarmenean euskararen inguruko konpromisoak eskatu, hornitzaileek euskaraz zerbitzua eskatu, eta aplikatu, Zumarragako Udalarekin euskarazko hartu-emanetarako espazioak topatu, etab. Era berean, barne-komunikazioaren esparruan, kontu txiki batzuk gaztelaniaz daude, eta beste hainbat ele bietan egiten dira. Uste dugu aukera ona izan daitekeela euskara hutsean egin daitezkeen barne-kontuak identifikatzeko, eta euskara lan-hizkuntza bultzatzeko.*

Nagusiki, helburu horiei erantzun nahirik dator plan hau.

Langileen zerrenda eta hizkuntza egoera

Urretxuko udal lanpostuetatik %69,97k izan behar dute lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatze data ezarrita.

Lanpostu zerrendan: 44 lanpostu daude, eta horietatik 4 hutsik (40 langile). Baina, beste 4 lanpostu daude enplegu planekin lotuta daudenak.

Urretxuko Udaleko derrigortasun-indizea:	%69,97	Lanpostu kopurua=40
Derrigortasun indizearen betetze maila: (DD duten lanpostuen %)	%87,5	40 lanpostutatik 35
Derrigorrezko hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila:	%91,42	35 lanpostutatik 32k

Derrigorrezko hizkuntza eskakizunak egiaztatze data dagokionez, hiru dira derrigortasun data ezarrita duten arren, lanpostuari dagokion HE egiaztatu ez duten langileak



Urretxu

- Idazkaria: lanpostuari 4HE dagokio, baina berak 3HE dauka.
- Kontuhartzailea: lanpostuari 4HE dagokio, baina berak 3HE dauka
- Udaltzaina: 2HE dagokio eta ez dauka egiaztatutako hizkuntza eskakizunik.

3.- PLANA DISEINATZEKO METODOLOGIA, FASEAK ETA PARTAIDEAK

Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa diseinatzeko Urretxuko Udalak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak VII. Plangintzaldirako proposatutako metodologia erabili du: KEMEN, zeinaren bidez erakunde euskararen kudeaketa eta erabilerari dagozkion 48 adierazle ebaluatzen diren, horietako 20 kudeaketaren ardatzaren baitan, eta gainontzeko 28ak erabileraren ardatzaren baitan (*ikus 2. eranskina*). Horietako 14 adierazlek osatzen dute Adierazleen Aginte Panela (*ikus 1. eranskina*), eta gutxi barru indarrean sartuko den Normalizaziorako Dekretuak zehazten duen bezala, adierazle horien inguruko informazioa eman beharko zaio hizkuntza normalizazioan eskumena duen organoari.

Plana diseinatzeko urratsak:

- **Urretxuko Udalaren sistema egituratua sortu**

Urretxuko Udalak aurretik sortua zuen Barne Kudeaketa Taldea (BKT) berreskuratu eta planaren jarraipena egiteko egitura izendatu du.

- **Autodiagnostikoa**

Autodiagnostiko bikoitza egin da Urretxuko Udalaren Plan Estrategikoa osatu ahal izateko: kuantitatiboa zein kualitatiboa.

Autodiagnostiko kuantitatiboan KEMEN osatzen duten 48 adierazleak neurtu dira, eta horretarako datu iturri bikoitza erabili da: batetik erakundeko 44 langileei zuzendutako galdetegiaren erantzunak kontuan hartu dira eta, bestetik, erakundeari zuzendutako galdetegiaren erantzunak.

Autodiagnostiko kualitatiboa burutzeko hainbat arloren inguruan hausnarketa egin behar izan da: Urretxuko Udaleko euskararen egoera, orain arte euskararen erabilera normalizatzeko egindakoa eta, azkenik, indarguneak eta hobetzekoak.

Bi diagnostiko horietako emaitzak kontuan hartuta, lehenengo eta behin erabaki da zein adierazlek osatu behar duten Urretxuko Udalaren plan estrategikoa eta, hori erabakita, VII.



Urretxu

Plangintzaldirako helburu kuantitatiboak zein kualitatiboak zehaztu dira, Urretxuko Udalak datozen bost urteetarako euskararen normalizazioan duen ikuspegia lortu ahal izateko.

4.- 2023-2027RAKO PLAN ESTRATEGIKOA

4.1. Helburua

VI. plangintzaldian bezala, oraingo honetan ere honakoa izango da planaren helburua:

Euskara ere lan hizkuntza "ohikoa" bilakatzea, hau da, Administrazioan bi hizkuntzen erabileran berdintasuneranzko pauso eraginkorrek ematea.

Horrez gain, plangintzaldi honetako helburu nagusia kudeaketa izaki, *Urretxuko Udalean hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko **egitura** bat sortzea da* plangintzaldi honetako helburuetako bat.

4.2. Oinarrizko irizpideak

Plan hauekin batera lantzen ari gara hizkuntza irizpideen dokumentu berria. Honakoak dira irizpideetarako erabilitako gako nagusiak:

1. KUDEAKETA

Kudeaketa sistema. Euskararen erabileraren normalizazioa udalaren kudeaketa orokorrean txertatuko da. Horri, jarraipen sistematikoa egingo zaio.

Lidergoa. Udaleko langileek eta politikoez euskararen aldeko jarrera proaktiboa erakutsiko dute.

Langileak. Langile berrientzako harrera linguistikoaren protokoloa ezarriko da.

Hizkuntza klausulak. Hizkuntza irizpideak txertatuko dira kontratu eta dirulaguntzetan eta horien jarraipena egingo da.

2. ERABILERA

Euskara lan eta zerbitzu hizkuntza. Udalean erabiliko den ohiko hizkuntza euskara izango da, bai ahoz eta bai idatziz.

Irudia. Udalaren irudia osatzen duten elementuak (errotulazioak, inprimakiak, webguneak, sare sozialak...) euskaraz edo euskarari lehentasuna emanez gauzatuko dira.

Kanpo harremanak. Ahal den gehienetan euskarazko harreman sarea zabaltzea bultzatuko da: herritarrekin, enprekin, erakundeekin, elkarteekin...

Sortze-hizkuntza. Ahalik eta material gehiena euskaraz sortzen saiatuko da.



Urretxu

4.3. Planaren egitura: kudeaketa eta erabilera

KEMEN metodologiak proposatutako egiturari jarraiki antolatu da plana, honako bi ardatzetan:

- **KUDEAKETA.** Euskara plana nola **gestionatzen** den jasotzen da hemen. Plana bultzatzeko zein egitura duen, departamendu bakoitzak plana barneratuta ote daukan eta bultzatzen duen, planaren jarraipena nola egiten den, langileei plana nola komunikatzen zaien, langileek zer parte hartze duten, enpresak kontratatzean hizkuntza irizpiderik jartzen zaien eta abar.

Honako arloak hartzen ditu: Euskararen kudeaketa orokorra, Lidergoa, Langileak, Hizkuntza Gaitasuna, Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa eta Hizkuntza klausulak.

- **ERABILERA.** Udalak zein hizkuntzatan **funtzionatzen duen** jasotzen da hemen. Bai ahoz eta bai idatziz, udal barruan zein kanpoko erakunde, eragile eta herritarrekin duen harremanetan. Eta baita, idatziak zein hizkuntzatan sortzen diren.

Honako arlo hauek hartzen ditu:

- **Zerbitzu Hizkuntzaren** barruan: Irudia eta Herritarrekiko harremanak
- **Lan Hizkuntzaren** barruan: Barne harremanak, Kanpo harremanak, Prestakuntza, Baliabide Informatikoak eta Sortze-hizkuntza



4.4. Diagnostikoa eta proposamenak, arloz arlo

4.4.1. Iturriak

Diagnosia egiteko 48 adierazle erabili dira 4.3 puntuan adierazitako bi ardatzetan banatuta: Kudeaketan, 20 adierazle eta Erabileran 28 adierazle.

48 adierazleen informazioa jasotzeko bi galdetegi erabili dira: *Langileentzako galdetegia* eta *Erakundearen galdetegia*. Langileentzako galderak pertzepzioz betetzekoak ziren eta Erakundearen galdetegiakoak batzuk pertzepzioz eta beste batzuk behaketaz, datuak jasota. Tauletan azalduta dago adierazle bakoitzaren iturria.

Langileentzako galdetegia 40 langilek bete dute eta Erakundearen galdetegiako galderak nagusiki Euskara sailetik erantzun dira, batzuetan arloetako teknikariek kontrastatuta.

Tauletan jasotako kopuruak bi galdetegi horietatik jasotakoak dira. Edonola ere, horretaz gain, osagarri gisa, 2021ean Bikain ebaluazioan jasotako informazioa txertatu dugu.

Plan Estrategikoaren proposamenak 2021eko Bikain ebaluazioko ebaluatzaileek beren txostenean proposatutako hobekuntza aukerak dira. Hori bai, kasu batzuetan euskara arloak beste hainbat gauza gehitu ditu.

4.4.2. Plan Estrategikoaren taulen gaineko azalpenak

Adierazleen inguruan.

- Datuen iturriak.** Tauletan adierazle bakoitzaren datuen iturria jarri dugu. Bi izan dira nagusiak: langileei pasatutako galdetegia eta erakundeak berak betetako galdetegia.
- **Adierazleen garrantzia edo erabilera.** Taulan jasotako adierazleak Eusko Jaurlaritzak KEMEN metodologiaren barruan finkatutakoak dira. KEMEN metodologiaren barruan 48 adierazle proposatzen dira, baina horietako 14 adierazle jotzen ditu Jaurlaritzak garrantzitsutzat, derrigorrez jaso eta Jaurlaritzari bidali beharrekoak.
- **Adierazle bakoitzari emandako 2027rako puntuazioen gaineko azalpenak** txosten honen 4.4.2. atalean eman ditugu.

4.5. 2023-2027RAKO PLAN ESTRATEGIKOA (TAULAK)

1. ardatza: KUDEAKETA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	300
67	199	82	244	

ARDATZAREN GAINEKO BALORAZIOA ETA HELBURU NAGUSIAK

2021eko BIKAIN ebaluazioaren txostenean ebaluatzaileek honako hobekuntza -proposamena egin zuten kudeaketari dagokionez:

- ***“Udalak badu hizkuntza-politika zehaztuta baina oraindik bada bidea egiteko hiztunen kudeaketa udaleko kudeaketa orokorrean txerta dadin. Gaur egun udalean dauden politikari eta teknikari gehienek argi dute zein den hizkuntzaren planteamendua, baina komeniko litzateke hobeto eta zehatzago jasotzea, bihar-etzi izan daitezkeen aldaketen aurrean ikuspegi hori sendotasunez mantentzea dadin (hizkuntza-irizpideak gehiago landu, departamentu eta saileko jardueretan txertatu euskaraz, dokumentuak sortzeko eta itzultzeko irizpideak, trebakuntza euskaraz jasotzeko beharrak, etab.). Horretarako, udalak sortu berrien duen Barne Kudeaketa Taldean euskararen zeharlerrotasuna txertatzea aukera bat izan daiteke.”***

Udal mailan ere kudeaketan urratsak ematea aurreikusi da.

Batetik, gaitasunari dagokionean, ikusi da oinarri ona dagoela. Langileak zein arduradun politikoak gai baitira euren funtzioak euskaraz betetzeko ahoz eta idatziz. Horrek, beste urrats batzuk emateko aukera ematen du, langile horien gaitasunean indarra jarri beharrean.

Baina, aldi berean, erabileran dugun egoera hori hobetzeko, kudeaketako arlo gehien-gehienetan hobetu beharra dugu. Horretarako, honako helburu nagusiak planteatzen dira:

- Jada antolatuta dagoen egitura egokia sendotzea: Barne Kudeaketa Taldearen (BKT) funtzionamendua sistematizatzea eta euskararen kudeaketa txertatzea.



Urretxu

- Jarraipen sistematikoa egitea. Urteko kudeaketa-planaren gauzatzearen irizpideen betetzearen jarraipen sistematikoa egitea, horretarako finkatutako prozedura eta maiztasunekin.
- Komunikazio egokia egitea.
 - Batetik, langileei udalean indarrean dauden planak eta irizpideak zabaltzea.
 - Bestetik, herritarrei zabaltzea udala euskararen sustapenerako egiten ari den ekintza eta estrategiak
- Langileak euskararen sustapenean parte hartzera animatzea. Bai erakundeari dagokionean, baita maila indibidualean ere.

1.0.1. arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
50	30	75	45	60

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.1.1 Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia E1 galdera.</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara teknikaria da plana exekutatzearen eta jarraipena egitearen arduradun nagusia. Bere arloari lotutako batzordean egingo da koordinazioa eta jarraipena. • Kudeaketa plan transbertsalik ez. Teknikari eta politikariek, oro har, oso ondo erantzun izan dute parte hartzea eskatu izan zaienean baina ez dago kudeaketa-plan transbertsal bat departamentu bakoitzaren ardurak eta egitekoak zehaztu eta esleitzen direna. • Arduradun politiko eta teknikoek osatutako taldea (BKT) badago, operatibitate maila baxua duena. <p>Indarguneak:</p> <p>Barne Kudeaketa Taldea (BKT): egitura jada eratuta dago. Orain, hori indartzea besterik ez litzateke faltako. BKT Udalaren kudeaketaz arduratzen den organo transbertsala da.</p>	50	75



Urretxu

	<p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1.0.1.1.a. Egitura egokia sendotzea: jada osatuta dagoen Barne Kudeaketarako Taldea, arduradun tekniko eta politikoz osatutakoa, sistematizatzea. Hau da, talde horri euskararen erabileraren kudeaketan eginkizun jakinak zehaztea kudeaketa erraztuko dutenak. 		
<p>1.0.1.2 Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia E2 galdera.</p> <p><i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da kudeaketa planaren eta hizkuntza irizpideen jarraipenik egiten; bai, ordea, plan estrategikoarena, plangintzaldiaren erdian eta amaieran, gutxienez. • Urtez urte Plan Estrategikoaren jarraipen minimoa egin da. <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • BKT dago, zeina planen eta irizpideen jarraipena egiteko organoa izan daitekeen. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1.0.1.2.a. Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideen dokumentua landu eta onartzea • 1.0.1.2.b. Jarraipenerako adierazle-panel egokia sortzea: ditugun lehentasun eta helburuekin uztartuta, egoki definitutakoa, datuak biltzeko modua, arduradunak, maiztasuna, epeak... zehaztuta izango dituen eta modu errazean jasotzekoa. • 1.0.1.2.c. Urteko kudeaketa-planaren gauzatzearen eta irizpideen betetzearen jarraipen sistematikoa egitea, horretarako finkatutako prozedura eta maiztasunekin • 1.0.1.2.d. 2025eko kudeaketa plana diseinatzea, Plan Estrategikoan eta 2024ko kudeaketa planean oinarrituta. 	50	75
<p>1.0.1.3 Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN)</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Inpaktua euskararen indarberritzean: prozedura banaka batzuetan aztertzen da eta euskararen biziberritzean eragin positiboa helburu duten neurriak txertatzen dira, noizbehinka. <p>Egindakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2021eko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa) egin zen, legeak hala eskatzen duelako. 	25	50



Urretxu

Datuen iturria: erakundearen galdetegia E3 galdera	Planerako neurriak:			
	<ul style="list-style-type: none"> 1.0.1.3.a. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egitea, legeak eskatzen duenean. 			

1.0.2. arloa: LIDERGOA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
71	52	83	61	75

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.2.4 Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia. E4.1 E4.2 eta E4.3 galderak.</p> <p><i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Urtean erakundeak 12 bilera egiten ditu plan estrategiko eta kudeaketa-planen jarraipenerako Egiten den jarraipen horretan udaleko sail bakoitzeko teknikariek eta politikariek hartzen dute parte. Arduradun politiko zein teknikoen bertaratzea %80 baino altuagoa da Ekarpenak egiten dituzte, beren ardurak betetzen dituzte eta gainerako arduradunei eta langileei egin beharrekoa betearazten diete, modu sistematikoan <p>EGOERA (2021eko BIKAIN txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> Herritarren Batzordean kudeatzen dira hizkuntzari buruzko gaiak eta aurrekontu propioa du udalean euskara sustatzeko Herritarren Batzordeak egiten du euskararen inguruko ekimenen jarraipena, arloko zinegotzia buru dela. 	91	100



Urretxu

	<p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Badago jarraipena egiteko organo bat, zeinetan udaleko politiko eta teknikoek parte hartzen duten <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• 1.0.2.4.a. Liderrek normalizazio planean dituzten funtzio eta egitekoak zehaztu eta komunikatzea, arduradun politiko eta atalkako arduradunek argi izan dezaten zer egin behar duten euren egunerokoan euskararen erabilerari dagokionez, sail guztiak kontuan harturik.		
<p>1.0.2.5 Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete ditzaten</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia. E5 galdera.</p> <p><i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Plan Estrategikoko eta kudeaketa planen helburuak betetze aldera, jarrera proaktiboa duten arduradun politiko eta teknikoak %40-59 artean daude.• Parte hartu bai hartzen dute, baina ez da oso aktiboa euren lana.	50	75
<p>1.0.2.6 Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia. E6 galdera.</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Arduradunek jaso beharreko informazioaren erdia baino gehiago biltzen dute. <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Arduradun politikoek badute adierazleak biltzeko inizatiba.• Jarrera aktiboa erakusten dute.	75	75

1.0.3. arloa: LANGILEAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	60
59	35	70	41	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.3.7 Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia. E7 galdera. Langileen galdetegia. L1 galdera.</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Erakundearen, oro har, ez da lanpostuen hizkuntza funtzioen inguruko informazio handirik zehazten. Hau da, langileei ez zaie plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideei buruzko azalpenik espezifikorik ematen. <p>EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> Langile berriak etortzen direnean, gaur-gaurkoz euskaraz egiten diete harrera, pertsonaleko arduradunak eta dagokion saileko arduradunak (euskaraz badaki). <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> 1.0.3.7.a. Langileei planak komunikatzea: langile bakoitzak udalak dituen planak eta hizkuntza irizpideak argi izan ditzan. 1.0.3.7.b. Langileei plana komunikatzearekin batera, bakoitzak dituen funtzioak argi uztea. 	40	60
<p>1.0.3.8 Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L2 galdera</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Ez da hizkuntza irizpideen komunikazio egokirik egin orain arte. Hori dela eta, adierazlearen egoera. Hori dela eta, langileen erdiak baino gutxiagok betetzen ditu bere lanpostuari dagozkion hizkuntza irizpideak. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> 1.0.3.8.a. Langileei hizkuntza irizpideen berri eman eta bakoitzak zer bete behar duen argi izatea. 	75	80



Urretxu

1.0.3.9 Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak Datuen iturria: langileen galdetegia. L3 galdetegia.	Egoera: <ul style="list-style-type: none">Langile gehienek ez daukate kudeaketa planeko ekintzen berri. Beraz, ez dituzte eginkizun horiek ezagutzen. Planerako neurriak: <ul style="list-style-type: none">1.0.3.7.a. neurria (langileei plana komunikatu eta hori protokolarizatzearena) komunikatzearena)	76	76
1.0.3.10 Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan Datuen iturria: langileen galdetegia. L4 galdetegia.	Indarguneak: <ul style="list-style-type: none">Erakundeak parte hartzen du goitik datozen ekintzetan: Euskaraldian, Ari Gara euskara teknikarientzako plataforman, Bikain kalitate ziurtagirian... Planerako neurriak: <ul style="list-style-type: none">1.0.3.10.a. Langileak sustapen ekintzetan parte hartzera animatu: langileak animatu udalak euskararen erabilera sustatzeko parte hartzea erabaki duen ekintzetan parte hartze aktiboa izan dezaten.	27	50
1.0.3.11 Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen bilakaeraz. Datuen iturria: langileen galdetegia. L5.1 eta L5.2 galderak.	Indarguneak: <ul style="list-style-type: none">Udalak euskararen erabileran bilakaera positiboa izan du.	66	70



Urretxu

1.0.4. arloa: HIZKUNTZA-GAITASUNA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
0	-	0	-	-

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.4.12 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L6 galdera</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Langile eta arduradun politiko ia guztiak gai dira postuaren funtzioak euskaraz, ahoz, betetzeko. Salbuespenen bat badago; esaterako, brigadan badira langile batzuk euskaraz ez dakitenak. <p>EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> Langile berriak kontratatzerakoan, euren lan-jardunen euskaraz aritzeko behar adina gaitasun badutela ziurtatuko da. Aldiro-aldiri langileei eskiniko zaizkien trebakuntza-saioekin osatuko da gaitasun-maila. <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Urretxuko Udalean euskaraz jarduteko gaitasuna dago. Langile berriak kontratatzerako kontuan hartzen da hizkuntza gaitasuna. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> 1.0.4.12.a. Langileak euskara maila hobetzera animatzea, euskara ondo menperatzen ez dutenei baliabideak eskaintzea. 	87	90
<p>1.0.4.13 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Oro har, gaitasun handia dago. Derrigortasun data duten lanpostu ia guztiek dute egiaztatuta lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna, lauk izan ezik. <ul style="list-style-type: none"> Idazkaria: 4 HE dagokio, baina 3 HE dauka 	79	80



Urretxu

<p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L7 galdera.</p>	<ul style="list-style-type: none">• Kontuhartzailea: 4 HE dagokio, baina 3 HE dauka• Udaltzaina: 2 HE dagokio, baina ez dauka egiaztatutako hizkuntza eskakizunik. <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Udalean bermatuta dago euskararen idatzizko erabilera. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• 1.0.4.13.a. Egiaztatzea falta diren lanpostu horietako langileak euren lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzerantz animatzea.		
<p>1.0.4.14 Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E8 galdera</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Egun dauden 13 zinegotziak gai dira euren funtzioak, ahoz zein idatziz, euskaraz betetzeko. Baina bada salbuespeneko kasurik.	100	100

1.0.5. arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
66	29	85	37	45

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.5.15 Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldee.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E9 galdera.</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Erakundeak bereizgarriak erabiltzen ditu eta ekimen bat edo beste jartzen du abian (baina ez modu sistematikoan), herritarrek eta gainontzeko interes taldeek euskaraz egin dezaten animatzeko. <p>EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> Udalak baliabideak jartzen ditu euskararen aldeko proaktibotasuna pizteko (euskara ikasteko dirulaguntzak, errotulazioa, irudi korporatiboa...). <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Erakundeak euskararen eskaintza aktiboa egiten du. 	75	100



Urretxu

	<p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> 1.0.5.15.a. Eskaintzaren komunikazioa: erakundeak euskararen eskaintza aktiboa egiten du, baina ez du horren komunikaziorik egiten. Horren komunikazioa egin bai herritarrei baita Udalaren inguruko entitateei ere. 		
<p>1.0.5.16 Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeke ekimenetan parte hartzen du</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E10.1 eta E10.2 galderak</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Erakundeak ez du askotan parte hartzen beste hizkuntza esperientzia eta praktika onak ezagutzeko eta euskararen normalizazioaren alorreko ezagutza jasotzeko antolatu diren ekimenetan. <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Udalak parte hartu izan du bere praktika onak zabaltzen. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> 1.0.5.16.a. Esperientziak ezagutzeko saiorik badago, Udalak horietan parte hartzea edo parte hartzen saiatzea. 	45	50

1.0.6. arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
88	53	100	60	60

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
1.0.6.17 Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Kontratu gehienek edo ia guztiek dituzte txertatuta hizkuntza klausulak; kontratu txikiek izan ezik. 	100	100



Urretxu

Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E11 galdera			
1.0.6.18 Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E12 galdera	Egoera: <ul style="list-style-type: none">Erakundeak sinatzen dituen dirulaguntza eta hitzarmen gehienek edo ia guztiek dituzte txertatuta hizkuntza-klausulak.	100	100
1.0.6.19 Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E13 galdera. <i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i>	Egoera: <ul style="list-style-type: none">Kontratuetako hizkuntza klausulei jarraipena egiten zaie; kontratuak egiterako garaian begiratzen baita zein den egoera. Planerako neurriak: <ul style="list-style-type: none">1.0.6.19.a. Jada egiten den jarraipen horren prozedura sistematizatzea. Hau da, hemendik aurrera kontratuetako hizkuntza klausulen jarraipena egiteko pausoak zehaztea.	75	100
1.0.6.20 Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari. Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E14 galdera.	Egoera: <ul style="list-style-type: none">Dirulaguntzetan eta hitzarmenetan ezarritako hizkuntza klausulei jarraipena egiten zaie. Planerako neurriak: <ul style="list-style-type: none">1.0.6.20.a. Jada egiten den jarraipen horren prozedura sistematizatzea. Hau da, hemendik aurrera dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza klausulen jarraipena egiteko pausoak zehaztea.	100	100

2. ardatza: ERABILERA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	700
71	489	79	559	

ARDATZAREN GAINEKO BALORAZIOA ETA HELBURU NAGUSIAK

Euskararen erabilera maila %70 ingurukoa da Urretxuko Udalean. Zerbitzu-hizkuntza gisa %80ko presentzia du euskarak; beraz, ez dago guztiz bermatuta. Laneko hizkuntzari dagokionez, gehienentzako bada laneko hizkuntza, baina hemen ere, badago zer hobetua.

Bikaineko ebaluazioan hobetze-aukera hauek planteatu zituzten ebaluatzaileek:

- *“Euskara hutsean lan egiteko eta erabiltzaile euskaldunei zerbitzua euskara hutsean emateko bidean urratsak eman ditzake Urretxuko Udalak. Horrela, udal barruko jardunbidera begira, euskara hutsean egin daitezke hainbat lan, eta, zerbitzu hizkuntzari dagokionez, euskaldunek euskara hutsean jasotzeko bidea ere urra daiteke”.*

Zerbitzu hizkuntzari dagokionez, erakundearen irudian euskararen presentzia bermatuta dago, baina udalarekin euskarazko harremanak nahi dituzten herritarrei beren hizkuntza hautua bermatzean badago zer egina.

Udal barruko funtzionamenduari dagokionez, bai ahoz eta bai idatziz erabat euskaraz lan egitera igarotzeko hutsuneak betetzen joatea litzateke erronka: ahozko erabileran daudenak, sortze-hizkuntzan daudenak, prestakuntzari dagokionak, baliabide informatikoei lotuak...

Kanpo harremanei dagokienez, berriz, Udalak berak bere komunikazio ia guztiak ele bietan bideratzen ditu. Horrekin lotuta, hauek dira Udalak datozen bost urteetarako duen erronka:

- Udalak euskarazko maiztasunez harremana izan dezakeen erakunde publiko eta enpresa pribatuekin hitzarmenak sinatzea harreman hori bermatu dadin.

2.1 eremua. ZERBITZU-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
79	167	84	179	210

2.1.1. arloa: IRUDIA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
100	40	100	40	40

EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik)

- Errotulazioari eta inguru digitalari dagozkion hizkuntza-irizpideak jasotzen dira udaleko euskara planean. Euskara gaztelania bezala, herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izango da. Hala bada, inguru digitalari dagozkion elementuetan hizkuntza-irizpideak ondo bereizten dira, eta euskara lehentasunez agertzen da: webgunea, Facebook, Twitter, etab. Birtxioetan edo bestelako iturriak aipatzerakoan ere euskarazko mezuei leku egokia ematen zaie.
- Solairu, gela eta guneetako errotuluetan euskararen nagusitasuna nabarmena da: kokapena, letra-lodiera eta tamaina...
- Bestelako errotulazioa ere (finkoa ez dena; Euskaraldia, COVID-19 gomendioak, oharrak...), euskara hutsean edo ele bietan ematen da, eta kasu horretan, euskararen nagusitasuna bermatzen da.
- Irudi korporatiboaren osagaiak (posta sinadura, zigiluak, orri-buruak), oro har, euskaraz eta gaztelaniaz daude.
- Prentsaurrekoetan ahozko jarduna euskaraz eta gaztelaniaz izaten da, hizlariak hizkuntza gaitasun egokia izan ohi dutelako. Era berean, prentsa oharrak euskaraz eta gaztelaniaz izaten dira. Euskarazko komunikabideetara euskaraz bidaltzen dituzte eta erdal komunikabideetara, gaztelaniaz.
- Herritarrekin egiten diren bilera irekietan (aurrekontuaren ingurukoak, esaterako) euskara erabiltzen da lehentasunez.



Urretxu

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>2.1.1.21 Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E15.1 eta E15.1 galderak</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak ele bietan daude. Hau da, kasu gehienetan bi hizkuntzak erabiltzen dira. Hala ere, aipagarria da behin-behineko errotulu gehienak euskararen ingurukoak direla eta, hala ez denean, euskarazkoa handiago dela. Euskarari lehentasuna edo lehen maila ematen zaio. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> 2.1.1.21.a. Errotuluen birmoldaketa: mezuak ulergarriak diren kasuetan errotuluak berritzea tokatzen denean euskaraz bakarrik jar daitezkeen aztertu. 	100	100
<p>2.1.1.22 Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E16.1 eta E16.1 galderak</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatean euskararen presentzia nahiko altua da. 	100	100
<p>2.1.1.23 Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E17 galdera</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan. Ez dago aurrez idatzitako inolako erabakirik. Euskara erabiltzen da egin izan diren ekintza, bilera eta halakoetan, baina inolako erabakirik hartu gabe. <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Ausaz agerraldi instituzionaletan euskara erabiltzea. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> 2.1.1.23.a. Euskararen erabilera sistematizatzea: aurretik irizpide batzuk zehaztea euskarak lekurik gal ez dezan. 	100	100



Urretxu

2.1.1.24 Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E18.1 E18.2 E18.3 eta E18.4 galderak	Egoera: <ul style="list-style-type: none"> Erakundeak ele bietan dauzka webgunea eta sare sozialak. Euskarazko bertsioa euskaraz eta gaztelaniazkoa gaztelaniaz. Hala ere, hainbat dokumentutan hitzak antzekoak direnean, euskaraz bakarrik daude, eta sare sozialetako argitalpenetan, euskarako gaiak direnean, euskaraz egiten dira publikazioak. 	100	100
	Indarguneak: <ul style="list-style-type: none"> Euskararekin eta gazteekin (16 urtetik beherakoekin) harremana duten sare sozialetako publikazioak euskaraz egiten dira, beti. 		
	Planerako neurriak: <ul style="list-style-type: none"> 2.1.1.24.a. Webgunerako hizkuntza irizpideak ezarri. 		

2.1.2. arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
76	127	83	139	168

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
2.1.2.25 Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	Egoera: <ul style="list-style-type: none"> Oro har, lan hizkuntza euskara da eta langileak euskaraz egitera ohituta daude. Hori dela eta, langile askok herritarrei euskaraz egiteko ohitura du. Gero, herritarrak erantzungo dionaren araberrako hizkuntza erabiliko du. Lanpostuetan “hemen euskaraz” gisako bereizgarriak daude, herritarrek euskaraz egin dezaten. 	81	100



Urretxu

<p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L8 galdera</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Herritarrekiko harreman idatzietan erabiltzailearen hizkuntza-hautua bermatzen da, bai idatzi ofizialetan, baita bestelako jakinarazpenetan ere.</i> - <i>Udaleko langileek zuzenean ematen dituzten zerbitzuetan, oro har, erabiltzailearen hizkuntza-aukera bermatzen da; izan ere, udaleko langile gehienak euskaraz hitz egiteko gai dira.</i> <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ezagunei zein ezezagunei lehen hitza euskaraz egitea. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2.1.2.25.a. Udaleko lanpostu batzuetan herritarrak euskaraz egitera bultzatzeko ezarrita dauden bereizgarrien erreposoa egitea eta berritzea, edota egin behar diren aldaketak aplikatzea. 		
<p>2.1.2.26 Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L9.1 eta L9.2 galderak</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Langile ia guztiek gaitasuna dute euskaraz komunikatzeko. Hori dela eta, euskaraz zuzentzen diren herritarrek, oro har, bermatuta dute langileek euskaraz egingo diotena. • Udalak zuzenean zerbitzua ematen ez duen kasu batzuetan (Auzobusa, Eguneko Zentroa,...) ezin da, beti, erabiltzaileen hizkuntza hautua errespetatu. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2.1.2.26.a. Euskaraz hitz egiteko gaitasun falta duten langileen kasuan, herritarren hautuarekin talka ez egiteko mekanismoren bat sortu. • 2.1.2.26.b. Udaleko sail guztietako ahozko erabilera neurtu. • 2.1.2.26.c. Herritarrei zerbitzua ematen dien azpikontratetan euskara, behintzat gutxienekoa, bermatzea (Auzobusa, Eguneko Zentroa eta abar), eta horren jarraipena egitea. 	94	96
<p>2.1.2.27 Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E19.1 eta E19.2 galderak</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalak herritarrentzako antolatzen dituen ikastaro gehienak euskaraz izaten dira. Hala ere, badaude gaztelaniaz ematen diren ikastaro batzuk. Baina, oro har, euskaraz ematen dira saioak. Normalean, gaztelaniaz ematen diren saioen arrazoiak saioa emango duenaren hizkuntza gaitasuna edo ekitaldi edo ikastaroaren hartzaileak izaten dira. 	78	85



Urretxu

<p><i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• 2.1.2.27.a. Ekitaldietan itzulpen zerbitzua (Telegram bidez ematen dena) eman daitekeen aztertzea.• 2.1.2.27.b. Udalak herritarrei egiten dien eskaintza (ekitaldiak eta ikastaroak) euskara hutsean ere izatea.		
<p>2.1.2.28 Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E20 galdera.</p> <p><i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Herritarrei bidaltzen zaizkien dokumentu gehienak ele bietan izaten dira (ereduak horrela sortuta dagoelako), baina euskara hutsean eta gaztelania hutsean bidalitako dokumentuak ere badaude. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• 2.1.2.28.a. Herritarrei bidaltzen zaizkien dokumentu idatziak bildu eta eredu guztiak ele bietan jasotzea. Horiek langile guztiei zabaldu.	96	100
<p>2.1.2.29 Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E21 galdera.</p> <p><i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none">• <i>Euskarazko erantzuna ematen zaie herritarrek euskaraz aurkezten dutenean harrera zerbitzutik egiten den kasuetan. Hirigintza zerbitzukoak, oro har, ele bietan egiten dira.</i>• <i>Urtean bi aldiz, datu-bilketa egiten da udaleko hainbat departamentutan, erabiltzaileen hizkuntza hautua zein izan den jakiteko; hainbat sailetan (kulturan, esaterako) herritarrek euskaraz jarduteko ohitura handia dute.</i> <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• 2.1.2.29.a. Praktika ona litzateke udalak jakitea herritarrek zein hizkuntza erabili nahi duen idatzizko harremanetan. Horrela, bete behar diren inprimakietan erregistratu daiteke zein den eskatzaileak idatziz udalarekin erabili nahi duen hizkuntza. Alegia, banakako harremana den kasuetan, herritarrek jaso dezala edozein informazio hautatutako hizkuntzan.	33	40
<p>2.1.2.30 Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Oro har, herritarren euskararen erabilera %50 ingurukoa da. Hots, herritarren erdiek besterik ez dute udalarekin euskaraz hitz egiten.	52	55



Urretxu

Datuen iturria: langileen galdetegia. L10 eta L11 galderak	Planerako neurriak: <ul style="list-style-type: none">• 2.1.2.30.a. Herritarrak udalarekin euskarazko harremana izatera bideratzea, bai ahoz baita idatziz ere.		
2.1.2.31 Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E22 galdera	Egoera: <ul style="list-style-type: none">• Herritarrek, oro har, webgunean dauden idatzizko ereduak betetzen dituzte eta horiek ele bietan daude. Hori dela eta, harreman gehienak ele bietan izaten dira. Hala ere, badaude gaztelania hutsean zuzentzen diren herritarrak, baita euskara hutsean zuzentzen direnak ere. Planerako neurriak: <ul style="list-style-type: none">• 2.1.2.30 adierazlerako neurri bera	33	36

2.2. eremua. LAN-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
70	327	81	380	490

2.2.1. arloa: BARNE-HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
76	110	83	120	147

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>2.2.1.32 Lan-bilerak euskaraz egiten dira</p> <p>Datu iturria: erakundearen galdetegia. E23 galdera. Langileen galdetegia. L12 galdera</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Lan bilerak euskaraz izaten dira. Baina ez dago bilera horiek hala izaten dira neurtzen duen ezer. Langileek esandako datuak dira. Plenoak, batzordeak eta lan bilera xumeak euskaraz egiten dituzte. <p>EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> Egindako elkarrizketen bidez, ondorioztatu dugu batzordeetan erabiltzen den dokumentazioa euskaraz edo ele bietan dagoela. 	40	60



Urretxu

	<p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2.2.1.32.a. Erakundeko bileretarako hizkuntza irizpideak zehaztea. Langileen artean aldaketarik badago, euskararen erabilera bermatuta egoteko. 		
<p>2.2.1.33 Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L13 galdera</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Erakundeetan hizkuntza-gaitasun nahikoa dago hainbat ahozko harreman euskaraz bideratzeko; gainera lankide batzuek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ulermena bermatzen dutenez, bilerak euskaraz egiteko bidea zabaltzen dute.</i> - <i>Bai aurrez aurreko harremanetan bai telefono bidezkoetan, euskararen erabilera handia da, elkarriketatuek talde ebaluatzaileari adierazi diotenaren arabera eta urtero egiten diren neurketek adierazten duten legez.</i> - <i>Ahozko harremanei dagokienez, euskara-zerbitzuak urtero neurketa batzuk egiten ditu ahozko erabilera zein den jakiteko. Harreran eta zerbitzu soziokulturalean erabilera oso altua izan ohi da</i> <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankideen arteko ahozko harremanak, oro har, euskaraz izaten dira. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2.2.1.33.a. Lankideen arteko erabilera proaktiboa bultzatzeko ekintzak proposatu. 	69	75
<p>2.2.1.34 Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L14 galdera</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Azken urteetan Euskaraldia antolatu izan da. Horrek, lankideen artean harremana euskaraz izatera bultzatu ditu erakundeko langileak. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2.2.1.33 adierazlerako neurri bera. (Lankideen arteko erabilera proaktiboa bultzatzeko ekintzak proposatu) 	69	70
<p>2.2.1.35 Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L15 galdera</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lan administratibo idatzian euskarazko komunikazioa bermatuta dago. Oro har, laneko email eta harremanetarako tresnetako harremanak euskaraz dira eta. 	95	99



Urretxu

<p><i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none">- <i>Barruko harreman idatziei dagokienez, jasotako informazioaren arabera, euskararen presentzia bermatuta dago</i> <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Urretxuko Udalean euskaraz idazten da. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• 2.2.1.35.a. Hainbat arlotako ahozko zein idatzizko komunikazioak euskaraz izateko bidea egin. Horretarako, azterketa sakon bat egin, zer eta nola egiten den ezagutzeko.		
<p>2.2.1.36 Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E24 galdera.</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Landu diren prozedura administratibo (dirulaguntzak, kontratuak, zehazpenak, baimenak...) gehienak ele bietan daude, ereduak horrela daudelako. Baina badira gaztelaniaz landu diren batzuk ere. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• 2.2.1.36.a. Ele bietan bideratzekoak diren dokumentuetako batzuk, gutxi, gaztelaniaz lantzen dira. Horien bilaketa egin eta euskaraz sortzeko bidea jorratzea.	83	85
<p>2.2.1.37 Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E25 galdera</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Udaleko legeak, arauak, dekretuak, aginduak, erregelamenduak, ordenantzak... ele bietan egiten dira. Horiek egiteko ereduak euskaraz eta gaztelaniaz (ele bietan) daude. Hori dela eta, Urretxuko Udalean xedapen orokorrak gutxienez euskaraz lantzea bermatuta dago.	100	100
<p>2.2.1.38 Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago</p>	<p>EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none">- <i>Oro har, barruko hizkuntza-paisaia elementuak euskaraz eta gaztelaniaz daude, euskarari lehentasuna emanez; adibidez, errokulazio finkoa eta aldakorra.</i>	98	100



Urretxu

Datuen iturria: langileen galdetegia. L16 galdera	Planerako neurriak:			
	<ul style="list-style-type: none"> • 2.2.1.38.a. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskara hutsean izatea, gehienetan behintzat, erakundeko langile ia guztiek euskara ulertzen dutelako. Horrela bada, elebitasunetik hizkuntza bakarrerako bidea egiten hastea izan daiteke euskarari arnaguneak emateko aukera bat • 2.2.1.38.b. Sarean elkarbanatzen diren karpetak eta dokumentuak euskaraz izendatzeko irizpideak ezartzea. 			

2.2.2. arloa: KANPO-HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
83	80	87	85	98

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
2.2.2.39 Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana. Datuen iturria: langileen galdetegia. L17 galdera	EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik) - <i>Urretxuko Udaleko langileek badute jarrera proaktiboa euskara erabiltzeko administrazioarekin dituzten ahozko harremanetan. Adibidez, gizarte langileek Aldundiarekiko harremanetarako aplikazioa euskaraz erabiltzen dute.</i> Indarguneak: <ul style="list-style-type: none"> • Sektore publikoarekin euskaraz egiteko ohitura dago. 	75	80



Urretxu

	Planerako neurriak: <ul style="list-style-type: none">• 2.2.2.39.a. Hitzarmenak sinatu maiztasunezko harremana duen inguruko udal eta administrazio publikoekin: hitzarmen horietan euskarazko harremanak bultzatu, bai ahoz bai idatziz.• 2.2.2.39.b. Udalak harremana duen erakunde publikoen inbentarioa egin eta harremanetarako hizkuntza zehaztu.		
2.2.2.40 Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak. Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E26 galdera Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa	Egoera: <ul style="list-style-type: none">• Beste hainbat alorretan bezala, honetan ere, kanpora bidaltzen diren dokumentu gehienak ele bietan daude. Horrela, euskaraz bidaltzea bermatuko da. EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik) <ul style="list-style-type: none">- <i>Urretxuko Udaleko langileek badute jarrera proaktiboa euskara erabiltzeko administrazioarekin dituzten idatzizko harremanetan. Adibidez, gizarte langileek Aldundiarekiko harremanetarako aplikazioa euskaraz erabiltzen dute.</i>- <i>Administrazio batek euskaraz hasitako komunikazioei euskaraz erantzuten zaie.</i>- <i>Inguruko erakundeekin egiten diren hitzarmenak euskaraz eta gaztelaniaz izan ohi dira (Merkatarien Elkarteak, Kirol Elkarteak, Ekoscan).</i>- <i>Idatzien kalitatea bermatzea helburu gisa aipatzen da, espreski.</i> Indarguneak: <ul style="list-style-type: none">• Idatzizko euskarazko harremana oso altua da, nahiz eta kasu gehienetan ele bietako dokumentuak izan. Planerako neurriak: <ul style="list-style-type: none">• 2.2.2.39 adierazlerako neurri berak. (hitzarmenak sinatu eta euskarazko harremana duen horiekin inbentarioa egin eta zabaldu)	95	100
2.2.2.41 Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana Datuen iturria: langileen galdetegia. L18 galdera	EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik) <ul style="list-style-type: none">- <i>Erakunde pribatuekin izaten diren elkarrizketak eta, bilerak euskara edo elebidun izan ohi dira, solaskidea euskalduna denetan</i> Indarguneak: <ul style="list-style-type: none">• Erakunde pribatuekin zailagoa izan badaiteke ere, euskaraz aritzeko ohitura dago.	66	68



Urretxu

	<p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• 2.2.2.41.a. Hitzarmenak sinatu erakunde pribatuekin: ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izan daitezten.• 2.2.2.41.b. Erakunde pribatuekin sinatutako kontratuetan hizkuntza irizpideak ezartzen jarraitu. (Kontratu txikiak salbuetsi)• 2.2.2.41.c. Udalak kontaktua duen enpresen inbentarioa egin eta harremana zein hizkuntzatan izan behar den zabaldu		
<p>2.2.2.42 Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E27 galdera</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Enpresa pribatuetara bidalitako dokumentu gehienak ele bietan daude; dokumentu orokorren ereduak ele bietan sortuta daudelako. Hala ere, erakunde publikoekin ez bezala gaztelaniaz egiteko joera handiagoa dago sektore pribatuarekin. <p>EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none">- <i>Erakunde pribatuekiko harremanak ele bietan dira. Erakunde pribatu batek euskaraz bidalitako idatzizko komunikazioari euskaraz erantzuten zaio.</i>- <i>Inguruko erakundeekin egiten diren hitzarmenak euskaraz eta gaztelaniaz izan ohi dira (Merkatarien Elkarte, Kirol Elkarte, Ekoscan).</i>- <i>Idatzien kalitatea bermatzea helburu gisa aipatzen da, espreski.</i> <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Dokumentu eredu elebidunak. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• 2.2.2.41 adierazlerako neurri berak (Erakunde pribatuekin hitzarmenak sinatu, kontratuetan hizkuntza klausulak txertatzen jarraitu, eta Udalak kontaktua duen enpresen inbentarioa egin eta zabaldu)	87	89



Urretxu

2.2.3. arloa: PRESTAKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
52	37	65	46	73.5

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>2.2.3.43 Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E28 galdera</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Erakundeak ez ditu prestakuntza ikastaroak antolatzen. <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> 2.2.3.43.a. Langileei inguruan egiten diren prestakuntza saioen berri eman. (urtean bizpahiru aldiz) 	60	80
<p>2.2.3.44 Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.</p> <p>Datuen iturria: langilearen galdetegia. L19 galdera</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza orokorra jasotzen duten langile askok beti, edo ia beti, euskaraz jasotzen dute prestakuntza hori. <p>EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> <i>Leku ezberdinetatik jasotzen dira ikastaroak (IVAP, Eudel, barruan antolatutakoak). Hainbatetan euskaraz ere jasotzen dituzte ikastaroak</i> <i>Ikastaro deialdiak eta izen-ematea, aplikazioak gehienetan euskaraz dira</i> <i>Prebentzio ikastaroak euskaraz egin izan dira, brigadakoa izan ezik (langile batek ez daki euskaraz)</i> 	58	60



Urretxu

2.2.3.45 Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei. Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E29 galdera.	Egoera: <ul style="list-style-type: none"> Erakundeak, espreski, ez du inolako hizkuntza trebakuntza ikastarorik antolatzen. HABE eta IVAPek antolatzen dituzte hizkuntzari lotutako ikastaroak,. 	25	50
	Planerako neurriak: <ul style="list-style-type: none"> 2.2.3.45.a. Hizkuntza trebakuntzaren zabalkundea egin. Langileei HABEk edota IVAPek euskararen trebakuntzarako antolatzen dituen ikastaroen berri eman (urtean bizpahiru aldiz). 		

2.2.4. arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
40	29	80	58	73.5

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
2.2.4.46 Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak. Datuen iturria: langileen galdetegia. L20 galdera	Egoera: <ul style="list-style-type: none"> Urretxuko Udalak langileen eskura jartzen dituen baliabide informatiko (Windows, Office, aplikazio orokorrak eta espezifikoak) gehienak euskaraz erabiltzeko aukera dagoen arren, langileen gehiengoak gaztelaniaz erabiltzen ditu. Udalak ez du aplikazio informatikoak hizkuntza jakin batean jartzeko inolako ahalegin berezirik egin. EGOERA: (2021eko BIKAIN txostenetik) <ul style="list-style-type: none"> Hainbat aplikazio euskaraz erabiltzeko moduan daudenak udaleko langileek euskaraz erabiltzen dituzte (Aldundiaren Gizarte.net eta Eusko Jaurlaritzak kontratazio elektronikoa, besteak beste). 	43	100



Urretxu

	<p>Indargunea:</p> <ul style="list-style-type: none">• Udalean erabiltzen diren aplikazioak euskaraz izateko aukera badago <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• 2.2.4.46.a. Euskarazko baliabide informatikoen argazkia.• 2.2.4.46.b. Sustapena: langileen artean euskaraz erabilgarri dauden baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea sustatu.		
<p>2.2.4.47 Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L21 galdera</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Aukera egonda ere, langileek ez dituzte euskaraz erabiltzen hala erabil ditzaketen aplikazio informatikoak. <p>Ahulguneak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ez da erabilgarri dagoena erabiltzen.	38	60

2.2.5. arloa: SORTZE-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	98
68	66	73	71	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>2.2.5.48 Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.</p> <p>Datu-iturria: langileentzako galdetegia, L22 galdera</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Langileek euskaraz edo ele bietan zabaldu behar dituzten testuak (txostenak, gutunak, oharrak, mezu elektronikoak, jakinarazpenak...) nagusiki euskaraz sortzen dituzte, nahiz eta atal batzuk itzultzaile neuronalaren edo beste baliabideren baten laguntzarekin atontzen dituzten. <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Langile gehienek sortze hizkuntza euskara izatea, eta ondoren gaztelaniara itzultzea <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> 2.2.5.48.a Itzulpenak egiteko bideak erraztea: langileei egin behar dituzten itzulpenak egiteko baliabideen azalpenak eman. 	68	73

5.- 2024RAKO KUDEAKETA PLANA

5.1. 2024rako lehentasunak finkatzeko irizpideak

Atal honetan 2024an bideratzekoak diren ekintzak jaso ditugu. **Horiek aukeratzekoan, honako irizpideak izan ditugu kontuan:**

1.- Hizkuntza irizpide berriak onartzea. Planarekin batera, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartu beharra dago. Lehen urterako eginkizuna izango da, KEMEN metodologiarekin lerrokatuta, irizpideak landu eta onartzea. 2024aren hasieran onartuko dira kasu honetan.

2.- Planaren oinarri berriak ezartzea:

- Euskararen erabilera udal mailako kudeaketan txertatzeko sistema berria antolatu eta martxan jartzea.
- Jarraipenerako adierazleen aginte-panela sortzea eta aplikatzea.
- Kudeaketa transbertsala bideratzea, eta ahal dela langile guztiak inplikatzea.

3.- Indartzeko beharra duten atalei arreta jartzea, bereziki, herritarrekiko harremanean euskarari indarra ematea eta, baldintzak dauden kasuetan, euskarazko harremanak bultzatu eta bideratzea. Horrez gain, Jaurlaritzaren Aginte Panelekoak diren adierazleei erreparatu diegu, adierazleen garrantzia maila zehazteko.

4.- Informatikari arreta berezia eskaintzea: alor horretan eragiteko dagoen beharra ikusita horretan eragiten saiatuko gara, eta euskaraz jarri daitezkeen aplikazio informatikoak euskaraz jartzea.

5.- Kanpoko harremanak (sektore publiko eta pribatuarekin) euskaraz izan daitezen hitzarmenak sinatzea. Inguruko udalekin, mankomunitatearekin, harreman zuzeneko enpresa pribatuekin....

Aurreko hori guztia bideratzeko jada eratuta dagoen Barne Kudeaketa Taldea jarriko da martxan, zeinetan arlo bakoitzeko buruek parte hartzen duten. Hala ere, gaiaren arabera, euskara saileko arduraduna eta egin behar den lanaren arabeko arloko arduraduna izango dira ekintza jakinak egiteaz arduratuko direnak. Kasu horretan, BKT jarraipena egiteko eremua izango da.

Osatutako ekintzen taulako faseetan eta kronograman aldaketak egon daitezke, baina, hasiera batean, bertan adierazitako epeetan ekintzak egitea litzateke gure helburua.

5.2. 2024RAKO KUDEAKETA PLANA, EKINTZEN TAULAK

1.- KUDEAKETA

<u>Planeko adierazlea(k)</u>	<u>Ekintza</u>	<u>Faseak, azalpenak, oharrak</u>	<u>Hartzaileak, beste partaideak</u>	<u>Arduradunak</u>	<u>Ekintzaren adierazleak</u>
1.0.1 arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA					
1.0.1.1 Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	Erabilera plana kudeatzeko Barne Kudeaketa Taldea modu egokian baliatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Barne Kudeaketa Taldean (BKT) modu sistematikoan biltzen hasi. • BKTn planaren jarraipenaren nondik norakoak azaldu. • Jarraipena egiteko egitura sistematizatu. 	BKT	Euskara BKT	Lantaldearen bilera kopurua
1.0.1.2 Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideen dokumentua landu eta onartzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Bertsio ezberdinak oinarri hartuta, hizkuntza-irizpideen proposamena landu. • Proposamena BKTn partekatu. • Behin betiko bertsioa egin, Herritarren Batzordetik pasa eta Udaltzaban onartu. 	BKT Udal langile guztiak Herritarrak, entitateak...	Euskara	Hizkuntza irizpideak Udaltzaban onartuta
1.0.1.2 Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	Jarraipenerako adierazle-panel egokia sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> • KEMENeko adierazle panela oinarri hartuta, Udalerako egokitutako aginte-panela osatu. • BKTn aurkeztu eta baloratu. • BKTn onartu. 	BKT	Euskara Gai bakoitzarekin lotutako teknikariak	Aginte-panela onartuta.
1.0.1.2 Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	2023ko kudeaketa-planaren gauzatzearen eta irizpideen betetzearen jarraipen sistematikoa egitea.	<ul style="list-style-type: none"> • BKTren kudeaketa-planaren betetzearen jarraipena egin. • Aginte panelaren araberako ebaluazio-txostena egin. 	BKT	BKT Euskara	Aginte-panelaren araberako ebaluazio txostena eginda.



Urretxu

1.0.1.2 Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	2025erako kudeaketa plana diseinatzea, Plan Estrategikoan eta 2024ko kudeaketa planean oinarrituta	<ul style="list-style-type: none"> • 2023-2027 Plan Estrategikoa eta 2024ko ebaluazio-txostena oinarri hartuta, 2025ekoa diseinatu. 	Udal langile guztiak BKT	Euskara BKT	Txostena osatuta eta onartuta.
1.0.2 arloa: LIDERGOA					
1.0.2.4 Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean	Udaleko arduradun politiko guztiei plana aurkeztea.	<ul style="list-style-type: none"> • Udalean 2023-2027 Plan Estrategikoa dagoela azaldu, eta nondik norakoan berri eman. 	Ordezari politikoak	Euskara	Aurkezpena.
1.0.3 arloa: LANGILEAK					
1.0.3.7 Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	Langileei erabilera plana eta hizkuntza -irizpideak komunikatzea, bakoitzaren egitekoak azalduz. Era berean, planean aktibo izatera animatzea eta laguntzea, euren ekarpenak eskatzea, lorpenen berri ematea.	<ul style="list-style-type: none"> • Plana BKTn aurkeztu. • Plana arlo bakoitzean aurkeztu. 	Udal langileak	Departamendu buruak Euskara	Planaren aurkezpena eginda.
1.0.3.7 Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	Langile berrientzako harrera protokoloa zehaztea eta euskararen inguruko irizpideak jakinaraztea, bertan.	<ul style="list-style-type: none"> • Harrera protokoloa idatzi. • Udalera etortzen diren langile berri guztiei harrera linguistikoa egin. 	Udal langile berriak	Pertsonaleko arduraduna Euskara	Harrera protokoloaren txostena eginda.
1.0.4 arloa: HIZKUNTZA-GAITASUNA					
1.0.4.12 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz, ahoz, betetzeko.	Langileak euskara maila hobetzera animatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Langileei dauden trebakuntzen berri eman. 	Udal langileak	Euskara	Komunikazio-idatzia, bideratuta. Klaseetara animatutako langile kopurua.



Urretxu

1.0.4.13 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz, idatziz, betetzeko	Egiaztatzea falta diren lanpostuetako langileak euren lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzea animatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Langileei hizkuntza eskakizun hori ateratzeko dauden aukeren berri eman. • Horretarako, jaso ditzaketen eskolen berri eman. (urtean bizpahiru aldiz) 	Udal langileak	Euskara	<p>Komunikazio idatzia, bideratuta</p> <p>Klaseetara animatutako langile kopurua</p>
1.0.5 arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA					
1.0.5.15 Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritarrei eta gainerako interes-taldeei.	<p>Udalarekin harremana duten elkarte, enpresa eta abarri plana komunikatzea.</p> <p>Baita herritarrei ere.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zein bidetatik komunikatuko den zehaztu. • Udalak harremana duen elkarte horietako kideek zabalpena egin, eta euskarazko harremana izateko bideak ireki. 	<p>Herritarrak</p> <p>Udalarekin harremana duten enpresa, elkarte eta abarrak</p>	Euskara BKT	<p>Zabalkundearen albiste orokorra, publikatuta.</p> <p>Komunikazioa jasotako enpresa kopurua.</p>
1.0.6 arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK					
1.0.6.19 Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	Kontratuetako hizkuntza klausulen jarraipena sistematizatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Orain arte egindako jarraipena begiratu. • Jarraipena nola egin zehaztu eta jarraipenerako irizpideak onartu. 	Departamentu guztiak	Euskara	Jarraipenerako irizpideak biltzen dituen txostena.

2.- ERABILERA

2.1.- ZERBITZU HIZKUNTZA

Planeko adierazlea(k)	Ekintza	Faseak, azalpenak, oharrak	Hartzaileak, beste partaideak	Arduradunak	Ekintzaren adierazleak
2.1.2 arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK					
2.1.2.25 Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	Herritarrak euskaraz egitera bultzatzeko ezarrita dauden bereizgarrien errepasoa eta beharrezkoak diren aldaketak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> Euskaraz jarduteko gaitasuna duten langile guztiei bereizgarriak banatu. 	Udaleko langile guztiak Herritarrak	Euskara	Bereizgarria duten langileen kopurua.
2.1.2.26 Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.	Herritarrei zerbitzua ematen dien azpikontratetan euskara, behintzat gutxienezkoa, bermatzea (Auzobusa, Eguneko Zentroa eta abar), eta horren jarraipena egitea.	<ul style="list-style-type: none"> Azpikontratetzen diren zerbitzuak identifikatu. Zerbitzu horietako hizkuntza gaitasuna neurtu. Euskarazko zerbitzua eman dezaten eskatu, eta hori bete dezaketela ziurtatzen saiatu. Jarraipenerako sistema egokia osatu. 	Azpikontrataturako zerbitzu enpresak Herritarrak	Euskara Departamentu buruak	Euskaraz zerbitzua ematen dutenen kopurua. Jarraipenerako adierazleak.
2.1.2.27 Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	Herritarrentzako ekitaldietan itzulpen zerbitzua (Telegram bidez) eskaini daitekeen aztertzea.	<ul style="list-style-type: none"> Telegram bidez itzulpena eskaintzerik dagoen, eta hori nola egin daitekeen aztertu. 	Herritarrak	Euskara	Telegram bidezko itzulpenak nola egiten diren azaltzeko jarraibideak.
2.1.2.28 Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	Herritarrei bidaltzen zaizkien dokumentu guztien ereduak ele bietan osatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Herritarrei bidaltzen zaizkien dokumentuen zerronda osatu. Dokumentu horiek guztiak ele bietan daudela ziurtatu. Langile guztien artean zabaldu. 	Udaleko langile guztiak Herritarrak	Euskara BKT	Dokumentu guztiak ele bietan izatea.
2.1.2.29 Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin	Herritarrak udalarekin harremanetan izan nahi duen hizkuntza zehaztea, eta	<ul style="list-style-type: none"> Herritarrei harremana zein hizkuntzatan izan nahi duten galdetu, eta euskaraz nahi 	Udaleko langile guztiak	Euskara BKT	Euskarazko harremana nahi duten guztiekin



Urretxu

duen herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	euskaraz nahi duen herritarrari euskaraz erantzutea.	duenari euskaraz erantzun (gainontzekoei ele bietan). • Eskaera euskaraz aurkezten duenari euskaraz erantzun.	Herritarrak		euskarazko harremana izatea.
--	--	--	-------------	--	------------------------------

2.2.- LAN HIZKUNTZA

<u>Planeko adierazlea(k)</u>	<u>Ekintza</u>	<u>Faseak, azalpenak, oharra</u>	<u>Hartzaileak, beste partaideak</u>	<u>Arduradunak</u>	<u>Ekintzaren adierazleak</u>
2.2.1 arloa: BARNE-HARREMANAK					
2.2.1.33 Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	Lankideen arteko erabilera proaktiboa bultzatzeko ekintzak proposatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Proposatu daitezkeen ekintzak: ginkana, euskararen eguneko lehiaketa, Egunean Behinen parte hartzea... 	Udaleko langile guztiak	Euskara	Langileei proposamena luzatzea
2.2.1.34. Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izatea					
2.2.1.35 Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	Azterketa sakon bat egitea zer egiten den gaztelania hutsean, edo ele bietan, eta euskara hutsean izateko helburuak jartzen joatea, goranzko joera gerta dadin.	<ul style="list-style-type: none"> Idatzizko lan komunikazioak aztertu. Euskara hutsean izateko helburuak finkatu. Lankideei zabaldu. 	Udaleko langile guztiak	Euskara BKT	Azterketaren txostena
2.2.1.36 Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.	Ele bietan bideratzekoak diren dokumentuetako batzuk gaztelaniaz lantzen dira. Horregatik, euskaraz sortzeko baliabideak jorratu behar dira.	<ul style="list-style-type: none"> Gaztelaniaz lantzen diren prozedura administratibo horiek identifikatu. Euskaraz lantzeko lanketa egin. Lankideei komunikatu. 	Udaleko langile guztiak	Euskara Departamentu buruak	Gaztelaniaz lantzen den prozedurarik ez egotea
2.2.1.38 Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	Lanari lotutako hizkuntza paisaia euskara hutsean ezartzea.	<ul style="list-style-type: none"> Lanari lotutako hizkuntza paisaia begiratu eta euskarara pasa. 	Udaleko langile guztiak	Euskara	Laneko hizkuntza paisaia euskara hutsean egotea



Urretxu

2.2.1.38 Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	Sarean elkarbanatzen diren karpeta eta dokumentuak euskaraz izendatzeko irizpideak ezartzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza irizpideak zehaztu. • Barne Kudeaketa Taldean onartu. • Lankide guztiei zabaldu. 	Udaleko langile guztiak	Euskara BKT	Irizpideen txostena
2.2.2 arloa: KANPO-HARREMANAK					
2.2.2.39 Sektorre publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	Inguruko udal eta administrazioekin harremanak euskaraz bultzatzeko egitasmoa aurrera eramatea	<ul style="list-style-type: none"> • Euskaraz harremana izan dezakeen entitate publikoekin harremanetan jarri. • Euskaraz aritzeko hitzarmena sinatzea proposatu. • Onartzen dutenekin hitzarmenak sinatu. 	BKT Mankomunitatea Zumarragako Udala	BKT	Mankomunitatearekin eta Zumarragako Udalarekin euskaraz aritzeko hitzarmena sinatzea
2.2.2.39 Sektorre publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	Harremanetako erakunde publikoen inbentarioa osatu eta euskarazko harremana izan dezaketenak identifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak harremana duen erakunde publikoen zerrenda bildu. • Euskaraz harremana izan ditzakeenak identifikatu. • Langile guztien artean zerrenda hori zabaldu. 	Udaleko langileak Sektorre publikoa	BKT	Zerrenda osatuta
2.2.2.41 Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	Enpresa pribatuen inbentarioa osatu eta euskarazko harremana izan daitezkeenak identifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak harremana duen enpresa pribatuen zerrenda bildu. • Euskaraz harremana izan ditzakeenak identifikatu. • Langile guztien artean zerrenda hori zabaldu. • 	Udaleko langileak Enpresa pribatuak	BKT	Zerrenda osatuta
2.2.3 arloa: PRESTAKUNTZA					
2.2.3.43 Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	Langileei inguruan egiten diren prestakuntza saioen berri ematea.	<ul style="list-style-type: none"> • Langileentzako dauden prestakuntza saioak identifikatu. • Euskarazkoak zerrendatu. 	Udaleko langile guztiak	Euskara Pertsonaleko arduraduna	Ikastaroetan parte hartu duen langile kopurua



Urretxu

		<ul style="list-style-type: none"> • Langileei korreoz bidali horien berri izan dezaten. 			
2.2.3.45 Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.	Langileei euskarako prestakuntza saioen inguruko informazioa bidaltzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Langileentzako dauden prestakuntza saioak identifikatu. • Euskarazkoak zerrendatu. • Langileei korreoz bidali horien berri izan dezaten. 	Udaleko langile guztiak	Euskara Pertsonaleko arduraduna	Ikastaroetan parte hartu duen langile kopurua.
2.2.4 arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK					
2.2.4.46 Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	Udaleko baliabide informatikoen argazki bat egin eta euskararako urratsak ematea.	<ul style="list-style-type: none"> • Udalean erabilgarri dauden baliabide informatikoen zerrenda osatu. • Zerrenda horretan bakoitzaren hizkuntza zehaztu. • Euskaraz instalatu daitezkeenak identifikatu • PPT bat sortu. 	Udaleko langileak	Euskara Informatikaz arduratzen den teknikaria	Udalan erabiltzen diren aplikazio informatikoen euskarazko zerrenda (PPTa)
2.2.4.46 Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	Udal barruko erabilerarako aplikazioak euskaraz instalatzea, aukera dagoen guztietan.	<ul style="list-style-type: none"> • 40 urtetik beherako langile guztiei aplikazio informatikoak euskaraz instalatu. 	Udaleko langileak	Euskara Informatikaz arduratzen den teknikaria	40 urtetik beherako langile guztien aplikazioak euskaraz
2.2.5 arloa: SORTZE-HIZKUNTZA					
2.2.4.48 Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	Langileei itzulpenak egiteko baliabideak ematea	<ul style="list-style-type: none"> • Langileek sortzen dituzten dokumentuak itzultzeko (eusk>gazt edo gazt>eusk) baliabideak identifikatzea • Baliabide horien inguruko informazioa helaraztea 	Udaleko langileak	Euskara	Dokumentuak euskararatzeko baliabideen zerrenda

5.3.- KUDEAKETA PLANA. KRONOGRAMA

Oharra: Kudeaketa Planak aurrera egin ahala zehaztuko ditugu datak



Urretxu

ADIERAZLEA	EKINTZA	URRUTIA											
		Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
1.0.1.1	Erabilera plana kudeatzeko Barne Kudeaketa Taldea modu egokian baliatzea												
1.0.1.2	Hizkuntza Ofizialen Erabilera irizpideen dokumentua landu eta onartzea												
1.0.1.2	Jarraipenerako adierazle-panel egokia sortzea												
1.0.1.2	2023ko kudeaketa-planaren gauzatzearen eta irizpideen betetzearen jarraipen sistematikoa egitea												
1.0.1.2	2025erako kudeaketa plana diseinatzea, Plan Estrategikoan eta 2024ko kudeaketa planean oinarrituta												
1.0.2.4	Udaleko arduradun politiko guztiei plana aurkeztea												
1.0.3.7	Langileei erabilera plana eta hizkuntza -irizpideak komunikatzea , bakoitzaren egitekoak azalduaz. Era berean, planean aktibo izatera animatzea eta laguntzea , euren ekarpenak eskatzea, lorpenen berri ematea												
1.0.3.7	Langile berrientzako harrera protokoloa zehaztea eta euskararen inguruko irizpideak jakinaraztea bertan												
1.0.5.15	Udalarekin harremana duten herritar, elkarte, enpresa eta abarri plana komunikatu												
1.0.6.19	Kontratuetakoz hizkuntza klausulen jarraipena sistematizatu												
2.1.2.25	Herritarrak euskaraz egitera bultzatzeko ezarrita dauden bereizgarrien errepassoa eta beharrezkoak diren aldaketak egin												



Urretxu

2.1.2.26	Herritarrei zerbitzua ematen dien azpikontratetako euskara, behintzat gutxienekoa, bermatzea (Auzobusa, Eguneko Zentroa eta abar), eta horren jarraipena egin														
2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldietan itzulpen zerbitzua (Telegram bidez) eskaini daitekeen aztertzea .														
2.1.2.28	Herritarrei bidaltzen zaizkien dokumentu guztien ereduak ele bietan osatu .														
2.1.2.29	Herritarrek udalarekin harremanetan izan nahi duen hizkuntza zehaztea , eta euskaraz nahi duen herritarrari euskaraz erantzutea														
2.2.1.33 / 2.2.1.34	Lankideen arteko erabilera proaktiboa bultzatzeko ekintzak proposatu														
2.2.1.35	Azterketa sakon bat egitea zer egiten den gaztelania hutsean, edo ele bietan eta euskara hutsean izateko helburuak jartzen joatea, goranzko joera gerta dadin.														
2.2.1.36	Ele bietan bideratzekoak diren dokumentuetako batzuk gaztelaniaz lantzen dira. Horregatik, euskaraz sortzeko bideak jorratu behar dira.														
2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza paisaia euskara hutsean ezartzea														
2.2.1.38	Sarean elkarbanatzen diren karpeta eta dokumentuak euskaraz izendatzeko irizpideak ezartzea														
2.2.1.39	Inguruko udal eta administrazioekin harremanak euskaraz bultzatzeko egitasmoa														
2.2.1.39	Harremanetako erakunde publikoen inbentarioa osatu eta euskarazko harreman izan dezaketenak identifikatu														



Urretxu

2.2.1.41	Enpresa pribatuen inbentarioa osatu eta euskarazko harreman izan daitezkeenak identifikatu												
2.2.3.43	Langileei inguruan egiten diren prestakuntza saioen berri eman												
2.2.3.45	Langileei euskarako prestakuntza saioren inguruko informazioa bidali												
2.2.3.46	Udaleko baliabide informatikoen argazki bat egin eta euskararako urratsak eman												
2.2.3.46	Udal barruko erabilerarako aplikazioak euskaraz instalatzea, aukera dagoen guztietan.												
2.2.3.48	Langileei itzulpenak egiteko baliabideak ematea												

6.- PLANA KUDEATZEKO EGITURA

Honakoa da planaren kudeaketa eraginkorra bideratu nahirik osatutako egitura:

1.- BARNE KUDEAKETA TALDEA (BKT):

- **Osaera:** arlo bakoitzeko buruak eta batzorde bakoitzeko ordezkari politikoak. Baita euskara teknikaria ere. (*Beharrezkoa ez bada, ez da bilera osoan edo guztietan egongo, baina hau lantzeko bai, noski.*)
- **Egitekoak:** Planaren zuzendaritza izango da bere ardura nagusia eta, besteak beste honako betekizunak izango ditu:
 - Hizkuntza irizpideak, Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Plana onartzea
 - Kudeaketa Planaren jarraipena egitea, egokitzea...
 - Hizkuntza irizpideen adierazleen aginte-panelaren jarraipena egitea
 - Gai zalantzazkoetan irizpideak finkatzea
- **Bileren maiztasuna:** hilean behin.

2.- TALDE TEKNIKOA:

- **Osaera:** Herritarrak batzordeko ordezkari politikoa eta euskara teknikaria.
- **Egitekoak:** Planaren lanketa teknikoaz arduratuko da:
 - Plan Estrategikoan eta Kudeaketa planean jasotako jarduerak gauzatzeko gidaritza, koordinazioa eta jarraipen teknikoa egitea.
 - Barne Kudeaketa Taldearekiko aholkularitza funtzioa betetzea eta bertan onartzen direnak landu eta bideratzea.
 - Udalaz gairik elkarlana bideratzea.
- **Bileren maiztasuna:** hilean behin, gutxienez.

3.- LANGILE GUZTIEKIKO KOMUNIKAZOIA. Balizko baliabideak:

- Departamentukako bilerak
- Helbide elektronikoak
- ...



Urretxu

7.- ERANSKINAK

7.1. ERANSKINA: Eusko Jaurlaritzak proposatutako adierazleen panela (KEMEN metodologia)

7.2. ERANSKINA: Eusko Jaurlaritzak proposatutako adierazle sistema (KEMEN metodologia)



Urretxu

1. ERANSKINA:

AGINTE PANELA

1.ardatza. KUDEAKETA

% 35

1.0.1. arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egitenda.	% 20	E2
---------	--	------	----

1.0.2 arloa: LIDERGOA

1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	% 20	E4.1 E4.2 E4.3
1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezzen.	% 25	E5

1.0.3 arloa: LANGILEAK

1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	% 25	L2
---------	--	------	----

1.0.6 arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK

1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	% 10	E13
----------	---	------	-----

2.ardatza. ERABILERA

% 65

2.1. EREMUA: ZERBITZU-HIZKUNTZA (erabileraren % 30)

2.1.2.arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK

2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	% 20	L8
2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.	% 30	L9.1 L9.2
2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	% 20	E19.1 E19.2
2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 15	E20
2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautuaegin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	% 15	E21

2.2. EREMUA: LAN-HIZKUNTZA (erabileraren % 70)

2.2.1.arloa: BARNE-HARREMANAK			
2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	% 35	L13
2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	% 25	L15
2.2.2. arloa: KANPO-HARREMANAK			
2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkiedokumentuak.	% 15	E26
2.2.5 arloa: SORTZE-HIZKUNTZA			
2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	% 25	L22



Urretxu

2. ERANSKINA:

1.ardatza. KUDEAKETA

% 30

1.0.1. arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA		% 20	
1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratu osatu du.	% 40	E1
1.0.1.2 *	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egitenda.	% 60	E2
1.0.1.3	Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, berelanjardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).	-	E3
1.0.2 arloa: LIDERGOA		% 25	
1.0.2.4 *	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	% 35	E4.1 E4.2 E4.3
1.0.2.5 *	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.	% 35	E5
1.0.2.6	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, planestrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.	% 30	E6
1.0.3 arloa: LANGILEAK		% 20	
1.0.3.7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	% 30	E7 L1
1.0.3.8 *	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	% 40	L2
1.0.3.9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.	% 20	L3
1.0.3.10	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.	% 10	L4
1.0.3.11	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz.	-	L5.1 L5.2
1.0.4. arloa: HIZKUNTZA-GAITASUNA		-	
1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.	-	L6
1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.	-	L7
1.0.4.14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	-	E8
1.0.5 arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA		% 15	
1.0.5.15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldee.	% 70	E9
1.0.5.16	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan partehartzen du.	% 30	E10.1 E10.2
1.0.6 arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK		% 20	
1.0.6.17	Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	% 15	E11
1.0.6.18	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	% 10	E12
1.0.6.19 *	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	% 45	E13
1.0.6.20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	% 30	E14

2.1. EREMUA: ZERBITZU-HIZKUNTZA (erabileraren % 30)

2.1.1. arloa: IRUDIA		% 20	
2.1.1.21	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.	% 20	E15.1 E15.2
2.1.1.22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.	% 20	E16.1 E16.2
2.1.1.23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.	% 30	E17
2.1.1.24	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.	% 30	E18.1 E18.2 E18.3 E18.4

2.1.2.arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK		% 80	
2.1.2.25 *	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	% 20	L8
2.1.2.26 *	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.	% 25	L9.1 L9.2
2.1.2.27 *	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	% 20	E19.1 E19.2
2.1.2.28 *	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 15	E20
2.1.2.29 *	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautuaegin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	% 20	E21
2.1.2.30	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.	-	L10 L11
2.1.2.31	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.	-	E22

2.2. EREMUA: LAN-HIZKUNTZA (erabileraren % 70)

2.2.1.arloa: BARNE-HARREMANAK		% 30	
2.2.1.32	Lan-bilerak euskaraz egiten dira.	% 20	E23 L12
2.2.1.33 *	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	% 25	L13
2.2.1.34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.	-	L14
2.2.1.35 *	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	% 20	L15
2.2.1.36	Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.	% 15	E24
2.2.1.37	Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar.	% 15	E25
2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.	% 5	L16



Urretxu

2.2.2. arloa: KANPO-HARREMANAK		% 20	
2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	% 30	L17
2.2.2.40 *	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkiedokumentuak.	% 40	E26
2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	% 15	L18
2.2.2.42	Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie idatzizko komunikazioak.	% 15	E27

2.2.3. arloa: PRESTAKUNTZA		% 15	
2.2.3.43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	% 35	E28
2.2.3.44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.	% 45	L19
2.2.3.45	Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei.	% 20	E29

2.2.4 arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK		% 15	
2.2.4.46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituztenbaliabide informatikoak.	% 50	L20
2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabideinformatikoak.	% 50	L21

2.2.5 arloa: SORTZE-HIZKUNTZA		% 20	
2.2.5.48 *	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	% 100	L22

